



Itzali da sua...

TOLOSA ▶ San Joan Eguna ospatu zuten herenegun ekitaldi ugariarekin: batelak, eskopetariak, dantzariak, suak ...

ESKUALDEAN ▶ Belauntzan, Abaltzisketan eta Anoetan ere izan zuten zer gozatu sanjoanetako egitarauaren baitan ▶ 4-5



Goitik behera eta ezker-eskuin: Eskopetariak, Bordondantzariak eta batel estropaden finalak, herenegun. IBON AZPILIKUETA

IV. HITZA PILOTA TXAPELKETA ▶

Etorkizuneko pilotakadak

Adunako pilotalekuan ostiralean eta Tolosako Beotibarren herenegun jokatu zituzten IV. HITZA Pilota Txapelketako finalak; giro polita izan zen eta maila handiko ikuskizuna eskaini zuten pilotariek

INIGO TERRADILLOS

IV. HITZA Txapelketak baditu irabazleak. Izan ere, iragan ostiralean eta herenegun jokatu zituzten finalak zazpi mailetan.

Ostiraleko finalak Adunan izan ziren, eta bertan Peña-Iturbe, Mujika-Iruretagoiena eta Azketa-Arratibel egin ziren txapelarekin. Giro ona nagusitu zen Adunako pilotalekuan. Partidei dagokionez, gaztetxo-eneena hau da, benjaminena, oso orekatua izan zen borrokata, baina azkenenean nagusitzen joan ziren Peña eta Iturbe Martinez eta Errandonearen aurka. Alebinen partida oso gogorra izan zen; bai behintzat 12. tantora arte, eta hordutik aurrera zorte handiagoa izan zuten Mujikak eta Iruretagoie-

nak Iribarria eta Goitiak baino. Adunako azken partida infantilena izan zen. Hemen Azketak eta Arratibelek izan zuten partidaren nagusitasuna Gailurralde eta Goitiaren aurrean. Arratibelek golpe ona duela erakutsi zuen, eta Azketak, berriz, tantoak erraz amaitzen bakiela.

Herenegun jokatu zituzten gainerako finalak, hau da, kadeteena, jubenilena, etorkizunekoena eta nagusiarena, eta Beotibar pilotalekura jende ugari geraturatu zen hauek ikustera. Kadetean Ezkurdia eta Jauregi lehiatu ziren, eta partida oso polita izan zen, borrokatua. Azkenean, Ezkurdia bereziki sakean gailendu zelako tantoak batuz joan zen irabazi arte.

Jubenilen artekoa ere oso

borrokatua izan zen. Galartza eta Gebara Eskudero eta Sagasetaren aurka aritu ziren. Galartzari urduri zegoela nabari ziztaion, eta Eskudero-Sagasetatik bikoteak berriz, egindako bikotea dela erakutsiz finala bereganatu zuen. Etorkizunekoaren artekoan, Mitxelena Telletxearen aurrean gailendu bazen ere, Irazustak egin zuen partida onena, dena den, Mitxelena-Muguruza bikoteak irabazi zuen azkenean. Nagusiarena izan zen azken partida.

Aurtengo txapelketak horrela esan dio, bada, agur hurrengora urtera arte. Orduan ere izango da ikuskizuna.



Nagusien mailako finala, Beotibarren. I.T.



IV. HITZA Pilota Txapelketako irabazleak eta txapeldunordeak lehiaketako antolatzaileekin batera. I.T.

EMAITZAK ▶

Benjaminak

Iturbe-Peña	16
Martinez-Errandonea	7

Alebinak

Mujika-Iruretagoiena	16
Iribarria-Goitia	12

Infantilak

Goitia-Gailurralde	10
Azketa-Arratibel	18

Kadeteak

Jauregi	10
Ezkurdia	18

Jubenilak

Eskudero-Sagaset	22
Galartza-L.Gebara	16

Etorkizunekoak

Muguruza-Mixelena	22
Irazusta-Telletxea	18

Nagusiak

Renobales-I. Bengoetxea	22
Ongai-E.Galarra	15

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

UGAITZ RENOBALDES ▶ NAGUSIAK

«Finala nahiko txarra izan zen, baina txapela behintzat lortu dugu»

Ugaitz Renobalesek (Alegia, 1986) Jon Bengoetxearekin batera, IV. HITZA Pilota Txapelketa irabazi du nagusien mailan, Beotibar pilotalekuan Ongai eta Galarragaren aurka 22 eta 15 gailenduta. «Gustura» azaldu da lortutakoarekin.
Nola ikusi zenuen finala?
Desastre xamarra izan zen finala, partida txarra izan zen, orohar, akats ugari izan baitziren, eta egindako tantoak oso gutxi. Beraz, finalarekin ez nintzen batere gustura geratu. Baina, tira, behintzat irabazi egin genuen.
Aurkarien mailari dagokionez
Galarraga dezente aritu zen, Ongai ere nahiko ondo aritu

zen aurrean, baina, lehen esan bezala, orohar, gutziak ere nahiko eskas aritu ginen.
Horrelako finala espero al zenuen?
Partida politagoa espero nuen, baina agian finaleko urduritasunak eragin zuen halako partida izatea.
Txapelketa, orohar, nolako izan da?
Maila ona egon da. Lehen partida erraz irabazi genuen, eta finalaurrekoa, berriz, gogorra goian izan zen. Txapelketarekin gustura geratu naiz.
Aurrera begira?
Orain udan sartu garela eta, partida asko izaten ditugu, batez ere, festetan, eta horietarako prestatzeko entrenatzen egongo naiz ia egunero. ◀



Ugaitz Renobales. I.T.



Jon Bengoetxea. I.T.

JON BENGOTEXEA ▶ NAGUSIAK

«Orohar, akats ugari egin ditugu lau pilotariek»

Renobalesekin batera aritu da IV. HITZA Pilota Txapelketan Jon Bengoetxea (Eibar, 1980). Pozik dago txapela azkenean beraiek jantzi dutelako.
Nolako izan zen Beotibar pilotalekuko finala?
Partidaren erdira arte edo, nahiko gogorra izan zen. Baina, ordutik aurrera aurea hartu genien Ongai eta Galarragari. Guk gehiago asmatu genuen, eta beraiek, aldiz, akats gehiago egin zituzten.
Aurkariak espero bezala aritu al ziren?
Akats ugari egin zituzten, baina, orohar, partida osoan zehar laurok egin genituen akatsak. Ongai aurrelaria ondo aritu zen, baina kontuan da pilota gutsi jaso zituela, eta behartu

samar aritu zela. Galarragari, berriz, urduri nabari zitzaion.
Txapelketa nolako izan da?
Lehenengo partida erraz gainditu genuen, eta finalaurrekoa gogorra izan zen. Finalean, berriz, gu ginen faborito eta txapela lortu dugu, beraz, gustura.
Renobalesekin ondo moldatu al zara?
Oso ondo. Askotan jokatu izan dugu elkarrekin. Urduri zegoen finala hastean, animatu eta zertxobait lasaitu zen. Ondo moldatzen gara.
Zelintzuk dira dituzun hurrengo proiektuak?
Udan partida asko izaten dira. Nire kasuan, 3 edo 4 txapelketatan arituko naiz lehian. Ez dut atsedenik izango. ◀

Behin Pilota Txapelketako finalak jokatu TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA maila guztietako irabazleekin izan da, lehen irudipenen berri izan asmoz. Guztiak ere «gustura» agertu dira lorpenarekin.

PEÑA
BENJAMINA

«Finala nahiko erraza iruditu zait»



«Finaleko partida nahiko erreza iruditu zait. Aurkariak onak ziren, eta maila handia erakutsi dute, baina erraz gainditu ditugu. Oso gustura geratu naiz txapelketa irabazita. Bestalde, denetarik izan da, baina aurkari gogorak izan ditugu. Egia esan, finalera iristea espero genuen».

ITURBE
BENJAMINA

«Zazpigarren txapela irabazi dut Peñarekin»



«Erraza izan da azken partida. Txapelketarekin gustura geratu naiz, eta mailari dagokionez, handia izan dela esan behar. Ez da lehendabiziko txapela irabazten dudana; Peñarekin batera, dagoeneko zazpigarren txapela jantzi dut azken honekin».

IRURETAGOiena
ALEBINA

«Ez genuen hain final gogorra espero»



«Finala zaila izan da, nik uste nuena baino gogorragoa. Aurkariak onak ziren, eta horrek asko zaildu du partida, ez genuen uste horrelakoa izango zenik. Txapelketari dagokionez, orohar, maila altua nagusitu da partidetan, eta guztietan aurkari onak izan ditugu arerio».

AZKETA
INFANTILA

«Lan handia egin beharra izan dugu»



«Zaila izan da finala. Aurrez bagenekien aurkariak gogorak izango zirela, eta lan handia egin beharra izan dugu partida aurrera atera ahal izateko. Txapelketarekin oso gustura geratu naiz. Denetarik egon da, eta partida batzuetan sufriztea ere

egokitu zaigu, finalean gertatu bezala».

ARRATIBEL
INFANTILA

«Batez ere, aurrean ibili gara ondo»



«Gogorra izan da finala. batez ere, aurrean ibili gara ondo. Txapelketari dagokionez, denetarik egon da, baina maila altua nagusitu da».

EZKURDIA
KADETEA

«Ez dut pilotarekin nahi adina gozatu»



«Urduri atera naiz Beotibarreko finalera, eta horregatik, batez ere, nahiko zaila egin zait partida. Ez dut pilotarekin nahi adina gozatu. Irabazteko aukera nuela ikusten nuen, eta lortu dut, baina partida ona egin gabe. Gustura geratu naiz. Txapelketan zehar arerio gogorak egon dira».

Txapeldunen hitzak

Finalaren inguruan galdetuta gehienek gogorak izan direla erantzun dute; hori bai, guztiak agertu dira gustura lorpenarekin

pozik gaude, txapela lortu dugulako. Bestela, txapelketa ona izan da, maila altukoa».

MITXELENA
ETORKIZUNEKOAK

«Gustura geratu gara izan den mailarekin»



«Partida gogorra izan da, baina aurkariak ikusita horrelakoa espero genuen. Aurretik, irabazteko aukerak genituela ikusten genuen. Oso gustura geratu gara, maila polita baitzen txapelketan».

SAGASETA
JUBENILA

«Finala eskasa izan da, urduritasunagatik»



«Nahiko eskasa izan da finala, gehienbat urduritasunagatik. Baina

UZTURPE IKASTOLAK
HIRU IRAKASLE
eta **JANGELA ETA AUTOBUS**
BEGIRALEAK behar ditu

1. Euskal filologia eta magisteritza Lehen Hezkuntzan. Erref: LH
2. Magisteritza Haur Hezkuntzan. Erref: HH
 - Balioetsiko da: psikomotritzitatean formakuntza eta LH-en esperientzia
3. Ingeles filologia. Erref: Ingelera
 - Balioetsiko da: BHINEBIn formazioa.
4. Jangelarako begiralea. Erref:jangela
5. Autobuserako begiralea. Erref: autobus
 - Bietan balioetsiko da: begirale titulua

Curriculumak e-mailez jasoko ditugu; jasotzeko epea: ekainaren 29a
UZTURPE IKASTOLA. Egialde, 2- 20400 Ibarra
Tel.:943 671299 • ibarra@ikastola.net

SANJOANAK ▶

Agur sanjoanen argi izpiei

Ekitaldiz betetako asteburuaren ondoren amaitu dira Abaltzisketa, Belauntza eta Tolosako jaiki; festak amaitzearekin batera, eguzkia ere ezkutatu da

ESTI EZEIZA

Sanjoanekin batera eguzkia atera zuen Joan den ostialean. Atzo berri, festa amaitu zitako edo, eguraldi txarra gailendu zen berriro Tolosaldean. Festarako giro paregabea izan da beraz asteburuan, eta jendeak aprobetxatzeko aukera izan du.

Herenegun, San Joan eguna ospatzeko ekitaldi ugari izan ziren Anoeta, Abaltzisketa, Belauntza eta Tolosan. Kirok-ekitaldiak, bazkariak, dantza-ikuskitzak, pailazoak... izan dira asteburu honetan.

Tolosarek, egun hazi ospatzeko duten oihura bereziarekin jarraituz, eskopetariz bete ziren igandean Tolosako kaleak. Hauen egun guztian zehar kaleetan barna joan ziren desfila eginez eta zarata ateraz. Arratsaldean, Udaltzuta, Tolosako Musika Banda trisultuari, eta bordondantzarekin elkar-tu ziren Plaza Zaharrean. Hemenek abiatu eta Santa Maria eliza nagusiko bezperetara joan ziren. Hurrean Triangulo bildu ziren denak, bertan deskargak egiteko. Hemen bertan Jokin Bildarratz alkateak agurra dantzatu zuen.

Igande goizean jokatu ziren batel estropadetako finalak ere, hemen gazteluarrak izan ziren nagusi, neska eta mutilak. Anonetan, bestalde, jende ugari bildu zen adinekoren bazkarian. Abaltzisketan ikusmin handia sortu zuen arratsaldeko zaldi-karrek. Garai berdin-tuan, herri kirolak izan ziren Ikusgai Belauntzan.



Igandean, eskopetarik desfila egin zuten Tolosako kaleetan barna. Abaltzisketan, jende ugari bildu zen zaldi-karretan. IKUSGAI BELAUNTZA

Ezker abertzalea present San Joan eguneko ospakizunetan

Igande arratsaldean, Triangulo plaza gauzatzeko ekitaldian, bordondantzarietako bat Jokin Bildarratz alkatearengana hurbildu zen, ezker abertzalearen izenean, idatzi bat emateko.

Alkateak agurra dantzatu ondoren, Joan zen dantzaria orria emateko. Testu laburra eta zuzena zen aldi berean. Hau San Joan jailetan parte hartzen duten talde batzuek sinatu zuten, hemen jarritzen

zuenarekin bat egiten zutela adieraziz. Sinatzaileen artean zeuden, Arrain taldekoak, bordondantzarietako batzuek, eta eskopetariak. Bertan zion, Tolosako herriaren boto eskubidea urratu izan dela azken udal hauteskundeetan, eta Tolosako Udala ez dela osatu tolosarrek eman dituzten botoen arabera. Hori dela eta, idatzi honekin alkateari eskatzen zioten «Tolosako Udala oso daikin tolosarren botoek agindut bezalako».

Jokin Bildarratz alkateak idatzi jaso zuen, eta voz zion ezer esan dantzariari. Azken honek idatzaren arrazoi azaldu zion eta ibesteak eskatzen hartu eta gero'ez egin zuen. Honen ondoren, ekitaldiekin jarraitu zuten denek, normal-tasun osoz. ◀



Bordondantzarietako bat idatzi ematen alkateari. IKUSGAI BELAUNTZA

BIDAIA ALTERNATIBOAK		Bidaialtzeko beste modu bat	
Hegakirekin	...tik aurrera	Hopidirik gabeko	
VENEZUELA 20 egun... 2030€		Namiñe-Bostwana-Zimbabwe 14 egun... 700€	
Peru 17 egun... 1200€		Hegoafrika 14 egun... 1000€	
Bulgaria 19 egun... 1210€		Bolivia 16 egun... 607€	
Vietnam 20 egun... 2100€		Erretika 16 egun... 1116€	
India 16 egun... 1000€		Canada 15 egun... 1180€	
Yemen 19 egun... 1500€		Hegoa 13 egun... 550€	
Urubekian 17 egun... 1700€		Myanmar 14 egun... 700€	
Egitarau gehiago atzeren <small>IKUSGAI BELAUNTZA</small>		Egitarau gehiago atzeren <small>IKUSGAI BELAUNTZA</small>	
Seguridun laguna 28 <small>IKUSGAI BELAUNTZA</small>		Seguridun laguna 28 <small>IKUSGAI BELAUNTZA</small>	
Donostia, 943 28 70 25		Donostia, 943 28 70 25	
www.kulturabidaia.com		www.kulturabidaia.com	




Tolosa. Gozetik hasi ziren igandean bordondantzariak beraien emanaldiak eskaintzen, horietako bat Santa Maria elizaren aurrean egin zuten. IKUSGAI BELAUNTZA



Belauntza. Herri kirolak izan ziren igandean arratsaldean herriko plazan Ikusgai. IKUSGAI BELAUNTZA



Tolosa. Errekortadoreek beraien abileziak erakutsi zituzten eskaintza emanaldian. IKUSGAI BELAUNTZA



Tolosa. Batel estropadetako finalen Gaztelukoak izan ziren garaile. IKUSGAI BELAUNTZA



Anoeta. San Joan eguna ospatzeko bazkaria egin zuten igandean Anoetako adinekoren. IKUSGAI BELAUNTZA

hitza

Egin zaitez harpidedun!

HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzu zure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beharpenen gehiutiko eta eskura oraindikuko erostenetan bakarrik aplikatuko da

Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratu dute, deitu 902 82 02 01 telefono zenbakira

Tolosaldeko eta Leizaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

Harpidedunen txokoa

DENDA HAU EK HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA

Donakin?

Tolosako hitza

San Francisco, 21 • Tolosa
Tel: 943 60 27 40

MUGAR

Naiferro elorb, 16 • TOLOSA
Tel: 943 65 56 55

LIZARRIBAR

OINETAKOAK

Arostegiete kalea 10 • TOLOSA
Tel: 943 65 40 37

IKUSGAI BELAUNTZA
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel: 943 67 40 74

KIROLAK ▶

Jon Kanflanka bigarren Nafarroako Segalari Txapelketan

Eskualdeko segalariak, gizon nahiz emakume, maila ona ematen ari dira jokatzeko ari diren txapelketa ezberdinetan



Dabid Mariñelarena eta Jon Kanflanka larunbatean, Leiztan, Nafarroako Segalari Txapelketan. N. GARZIA

ASIER IMAZ

Segalariak gogor ari dira lanean azken aste hauetan. Euskadiko Segalari Txapelketari, Nafarroako, Gipuzkoako eta Bizkaiko gehitu zaizkio. Hauek gutxi ez eta bada Nazioarteko Erako Euskal Herriko Txapelketan parte hartu duenik ere, Joxe Gabirondo, Andoni Goikoetxea eta Arkaitz Arteagaren kasuan.

Hiru txapelketetan parte hartu duen beste segalari bat, Jon Kanflanka leiztarra izan da. Euskadiko Segalari Txapelketan maiztasun 26ean hartu zuen parte Berastegin, nahiz eta kanporatua izan. Nafarroako Txapelketan leiztarrek finala jokatu zuen joan den astebu-

ruan Mariñelarenaren aurka. 45 minutuko lanean, bere herriarren aurrean, Kanflankak lanztarrak baina 157,5 kilogramo belar gutxiago moztu zituen. Herenegun ordea, Nafarroako Txapelketa lehiatu eta hurrengo egunean, Olaberriara joan zen leiztarra, Nazioarteko Erako Euskal Herriko Txapelketa jokatzera, bertan egindako lanaren ordainetan, euskal selekzioarekin, Austrian Europako Txapelketa jokatzeko eskubidea irabazi zuen.

Berarekin batera, Joxe Gabirondo eta Andoni Goikoetxea gazteluarrak, Arteaga baliarraindarrak eta Egia orendaindarrak egongo dira, Goenaga, Izagirre, J. Etxeberria, Lizaso eta G. Etxeberriaz gain. Nesketan berriz, Gabirondo, Irazustabarrena, Astondoa, Olano eta

Antsak osatuko dute Europako txapelketara joango den euskal selekzioa.

Azpiarratzekoa da eskualdeko segalarien maila eta batez ere, Gabirondo anai-arrebena. Tolosan eta Olaberriar buruturiko saioak kontutan hartuta lehenengo postuan amaitu baitute.

Eskualdeko hiru finalistak

Herenegun Errezilen Gipuzkoako Txapelketako bigarren jardunaldia burutu zuten. Izena emandako bost segalarietatik, Arkaitz Arteaga bakarrik geratu zen kanpoan. Ondorioz, igande honetan, uztailak 1, Larraitzen jokatu den finalean eskualdeko hiru segalari arituko dira lehian. Hauek, Joxe Gabirondo eta Andoni Goikoetxea gazteluarrak eta Jexuxmari Ormaetxea Urki orendaindarrak izango dira. Mikel Alkortaekin batera. Bi jardunaldiren ostean erabaki da Gipuzkoako Txapelketako finala, eta jokatuak kanporaketen emaitzak gehituaz, Urki izan da bost segalarietan nagusi, 13 puntuekin. Orendaindarrarekin berdindurik, Gabirondo geratu da. Mikel Alkorta eta Andoni Goikoetxeak, 8 puntu gehitu dituzte eta 3 puntuekin eta ondorioz finaletik kanpo, Arkaitz Arteaga geratu da.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Begiradak. Atal berri honetan, gai zehatzeko buruzko informazioa bilatzeko aukera erraza izango duzu: 2007ko Udaltzaletan hauteskundeetan aukeraturako alkate berriei egindako elkarrizketak, eskualdeetako musika taldeak...

SALGAI

Sutarako Egurra. Sutarako egur lehorra salgai. Etxera entregatzen da. 615 75 57 62.
Etxebizitza. Berrobin 3 logelako etxebizitza, eguzkitsua, bista ederrak, atiko gela eta trastelekua. 34.800.000. JM 657 77 00 85.
Autoa. Renault Megane gran tour. 1.5 DCI. 100 zaldi. 44.000 kilometro. Interesatuak deitu 630 635 013.

IBARRA ▶ GIZARTEA

V. Langostino Moto Festa asteburu honetan

Larunbatean eta igandean antolatuta dituzte ekitaldiak Langostino Moto Kultur Elkarteak

A. IMAZ

Ibarrako Langostino Moto Kultur Elkarteak, V. Langostino Moto Festa antolatuta du asteburu honetarako, larunbatea eta igandean, hain zuzen ere.

Orain artean antolatutako moto birei amaiera emango dien ekitaldia izango da asteburu honetarako. Bi egunetarako ekitaldi ugari antolatuta dituzte, motodun eta motogabeko zaletu guztientzat; ongietorri garagardea, kamisetak, opariak, Graffitiak eta show bike emaldiak egongo dira besteak beste 5. moto festan. Hilaren 30ean, larunbatea, 14:00etan emango zaio hasiera festari. Lehen eguneko ekitaldien artean jokuak eta kontzertuak egongo dira, 21:00etan burutuko duten afariarekin batera. Horretaz gain, Stuntman eta Striptease saioa ere ikusgai izango da Ibarrako plazan.

Igandean Moto bira eta bazkaria burutuko dituzte, goizeko 09:00etan hasiko den egunean. Moto bira San Bartolome plazatik irtengo da, ohikoa den bezala. Ondoren, hamaitzekoako egiteko beta hartuko dute ibilbidean barrena. Azkenik 13:00etan iritsiko dira berriro ere Ibarrako plazara.

Izena ematea mugatua egongo da; aldeaz aurretik 27 euro eta egunean 30 euro kostatuko delarik. Informazio garrantzirik, www.blogak.com/Imke/ helbidean aurkitu daiteke.

EGITARRAUA ▶

Bi eguneko moto festaren egitarau kartela aurkeztu dute.

EKAINAK 30, LARUNBATA

14:00. Festa hasiera.
17:30. Jokuak.
19:30. Stuntman: Narcis Roca.
21:00. Afaria.
23:00. Rock jaialdia, Losdelgas eta Txorithead taldeekin.
02:00. Striptease.
02:30. I. Langostino Zurito Txapelketa.
03:00. DJ Tupe.

UZTAILAK 1, IGANDEA

09:00-10:00. Gosaria eta topaketa Ibarrako San Bartolome plazan burutuko da.
10:30. Motorrekin bira, bidean hamaiketako egingo delarik.
13:00. Ibarrara itzulera.
14:00. Bazkaria eta festa amaiera.



Moto festako kartela. HITZA

ALEGIA ▶ BERTSOLARITZA

Imanol Irazustabarrena gaztetxoetan bigarren

A. IMAZ

Euskal Herriko XIX. Eskolarteko Bertsolari Txapelketaren finala, Altsasun (Nafarroa) jokatu zen iragan larunbatean. Gaztetxoetan mailan, 14 urte artekoetan hain zuzen ere, Amaia Iturriotz urretxuarrak (Gipuzkoa) jantzi zuen txapelketa. Bigarren berriz Imanol Irazustabarrena alegiarra geratu zen.



Imanol Irazustabarrena. N. URBIZU

POLITIKA ▶

TATek torturaren berri emango du Europako Parlamentuan

Martxelo Otamendik eta Nekane Txapartegik, besteak beste, parlamentariekin hainbat bilera egingo dituzte gaur

IMANOL GARCIA

Torturaren Aurkako Taldeak (TAT) martxa abiatu du Europako Parlamentura «Euskal Herrian torturatzen dela» salatzeko eta torturaren inguruko egoeraren berri ematera. Ordezkaritza talde bat joan da, tartean Martxelo Otamendi tolosarra eta Nekane Txapartegi asteasuarra, zenbait parlamentariekin elkarrizketak izateko. Bestalde, autobus bat eta furgoneta bat joan dira parlamentuaren aurrean elkarretaratzea egin eta informazioa zabaltzeko asmoz.

Martxelo Otamendik azaldu duenez, «gure esperientziaren berri ematera goaz. Euskal Herrian torturatu egiten dela azaltzera goaz eta gai honen inguruan begiak irekitzera parlamentariei». Gaur bilerak egitekoak dira Friendship taldearen baitan dauden alderdietako ordezkariak. Talde horretan biltzen dira Euskal Herriak bizi duen egoerari buruz jarraipena egiten dutenak. Alderdi txikiak kideak dira horiek. Europako Parlamentuan dauden alderdi nagusiek —sozialistak eta popularrak biltzen dituztenak esaterako— uko egin diote biltzeari. «Ez zaie komeni. Gurekin bilduz gero, *de facto* onartuko zutelako Euskal He-



Martxelo Otamendi —ezkerrean— eta Nekane Txapartegi —ezkerretik hirugarrena—, TATen prentsaurreko batean. I. GARCIA

rrian torturatu egiten dela», azaldu du Otamendik. «Beste alderdiekin biltzea da gure asmoa eta gero horiek presioa egitea Parlamentuan».

Berria egunkariko zuzendari tolosarrak torturak salatu zituen *Egunkaria auziaren* baitan atxilotu zutenean. TATen martxa honekin torturaren gaiaren berri eman nahi dute. «Ustea dago Euskal Herrian ez dela torturatzen», dio Otamendik, eta horri buelta eman nahi diote. Bestalde, Europan torturaren inguruko informazio egarria dagoela ere azaltzen du. «Etengabe bulegotik pasatzen dira jasan genituen torturaren berri jasotzeko», dio *Berriako* zuzendariak. Martxa honen lortuko dutena ikusteko

denbora beharko dela dio tolosarrak. «Pazientziarekin itxaron beharko ditugu emaitzak».

TATen ordezkariak gain joango direnak Parlamentuaren kanpoan elkarretaratzea egingo dute gaur torturaren aurka eta praktika horrekin amaitzeko exijituz. Bestalde, torturatuak Elorrioren (Bizkaian) egingo dako batzarrean adostutako manifestua banatuko dute.

Martxa honetan jazotakoaren inguruan prentsaurrekoa emango du bihar TATek Bilbon. Bertan ere, NBEn adostutako torturaren aurkako protokoloaren inguruan Espainiako Gobernuak duen jarrera salatu dute eta Bilbon hilaren 30ean egingo duten ekitaldiaren berri emango dute.

LEITZA ▶ PILOTA

Bengoetxeak orain udako torneoak ditu helburu

Olaizola II.aren aurka 22-12 galdu zuen lau t'erdiko San Fermin Torneoko finalaurrean

I. GARCIA

Bengoetxea VI.ak ezin izan zuen lau t'erdiko San Fermin Torneoko finalean sartu. Berriro ere topo egin du azken bi urteotako pilotari berdinarekin, Olaizola II.arekin, eta 22-12 galdu zuen. Orain udako torneoak ditu bere agendan, batez ere San Ferminetakoak. «Iruñekoa berezia da guretzat», azaldu du leitzarrak, «baina edozein torneo irabaztea ondo legoke». Udan ahal dituen partida gehien jokatu nahi ditu eta horretarako leisionik ez izatea espero du sasoi horretan.

Lau t'erdiko finalerdian bere jokoa egin zuela azaldu du Bengoetxeak: «Nik nire mailan jokatu nuen eta bera ni baino gehiago izan zen». Izan ere, Olaizolak neurria hartuta dio lau t'erdia eta egungo espezialista handienetakoa da. Barriolaren aurka buruz buruko txapelketa jokatzek ez zion kalterik egin gero Bengoetxearen aurka aritzeko. Leitzarrak garbi zuen mailarik onena eman behar zuela Goizuetako txapeladunari irabazteko: «Oso zaila da Olaizolari irabaztea lau t'erdian. Oso



Bengoetxea VI.a. HITZA

ondo egin behar dituzu gauzak eta berak ez du fin aritu behar aukerak izateko».

Bengoetxea gustura dago berak egindako partidarekin. «Orain bi urte 4 tanto egin nizkion. Iaz 6 tanto eta aurtan 12 egin dizkiot. Ea hurrengo urtean zer gertatzen den». Partidaren hasieran izan zuen leitzarrak bere unerik onena. 6-3 aurreratu zen markagailuan, baina Olaizolak erreazionatu zuen eta partida bereganatzea lortu zuen.

Hurrengo txapelketak urrutitua gelditzen dira. Orain, udan, pilotarietzat «presiorik gabe» jokatzeko unea izaten da, leitzarrak azaldu duenez.

ANOETA ▶

Bi txanda uztaileko udaleku irekietan

Anoetako Udalak udaleku irekiak antolatu ditu uztaileko. Bertan jokuak, kirolak, eskulanak, irteerak... izango dira. LH1etik aurrerakoak ariko dira eta Ikastolan egingo dituzte ekintzak. Bi txandatan egin ahal izango da: uztailearen 2tik 13ra eta uztailearen 16tik 27ra, bietan asteleheneetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara. Txanda bakoitzean astean behin egun osoko irteera bat egingo dute. Prezioak ondorengoak izango dira: txanda bat 35 euro eta bi txanda 70 euro. Izena emateko epea bihar bukatzen da.

AMEZKETA ▶

Batzorde osaketarako bilera deialdia

Batzorde osaketak egingo dira eta Amezketako Udalak deialdia egin die herritarrei bertan parte hartzeko. Kultura eta Festa Batzordeak osatzeko bilera gaur izango da, 20:30ean, balioanitzeko gela. Bihar, 20:30ean, gela berdinean Gizarte Ongizate Batzordea osatzeko bilera.

ABALTZISKETA ▶

Eskolaren zozketan 1.452a, zenbaki saritua

Abaltzisketako eskolak, urtero bezala, zozketa antolatu zuen San Joan festetan. Txekor bat zozketatu zuten, ohitura denez. Zenbaki saritua zen berri eman dute eta 1.452a da. Oraindik ez dakite zeinek jaso duen saria. Zenbaki saritua duena eskolarekin jar dadila harremanetan.

VILLABONA ▶ HEZKUNTZA



Erromatarren aztarnen bila Irunera

Erredakzioa ▶ Ikasleak jadanik oporretan daude, baina eskolara joatea utzi aurretik, tartea egin zuten Jesusen Bihotza Ikastolako LH1 mailakoek Irunera irteera bat egiteko. Oiasso museo eta Ama Txantalen ermita ikusi zituzten. «Benetan interesgarriak dira», azaldu dute. Erromatarrei buruzko aztarna ugari ikusi zituzten eta gelan jasotako informazioa aurrez aurre ikusi ahal izan zuten.

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Tolosa. Toni Lasalen taldeak *Birusak erasoan* haur antzezilana eskainiko du 16:30ean Amaratzen, Antzerki Jardunaldien baitan.

Villabona. Biltoki jubilatutako elkarrekin irteera antolatuta du Harora uztailaren 10erako. Argantzoren eta Gasteiz ere bisitatuko dituzte. Izen-ematea, elkarrekin 19 eurotan.

Leitza. Aralarako musika eskolara 2007/08 ikasturteko matrikulazio kanpaina zabalik dago udal txerren hilaren amaiera bitarte.

Anoeta. Udaleku irekiak antolatuta dituzte Anoetan haurrentzat. Bi txanda: lehena uztailaren 2tik 13ra, astelehenetik ostiralera, 10.00etatik 13.00etara; eta bigarrena uztailaren 16tik 27ra. Izen-ematea, udal txerren 35 eurotan.

Tolosa. Datorren ikasturteko matrikula irekita dago Udala Musika Eskolara, 9:30etik 13:00etara.

ERAKUSKETAK

Alegia. Jubilatuen taberna eskualdeko Xegunda Iztuetaren margolan biziak daude ikusgai, asteartetik igandera bitarte.

Orokorrean, paisaiak egiten ditu, eguzkiak zeruarekin sortzen dituen kolore berezi eta ederrak islatuz.

Tolosa. Aranburu Jauregian, Kultur Etxeko arte plastikoan lantegietako ikasleen lanen erakusketa.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.
Tolosa. Etxebeite, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 651040.

IRRATIA

Txolarre irrati (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotza* magazina: egurgaldia Joxe Landarekin, Hitzaren errepassoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotza* (errepikapena).
 20:00-21:00. *Goiko eskolatik betti*.
 21:00-22:00. *Izarrak eta ilargia*.

▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.

Tourraren sukarra

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶ Tropela elkarrekin Tourreko kinielak egiteko aukera ireki du 'www.tropela.net' webgunean, txirrindularitza eta euskara uztartuz

ARITZ MUTIOZABAL

Frantziako Tourrari heldu den uztailaren 7an emango diote hasiera. Hemen-dik bi asteburutara, hain zuzen ere. Baina apustuak egiteko sukarra hasia da dagoeneko Hitzak babesten duen Tropela elkarrekin *www.tropela.net* webgunean. Duela egun batzuk ireki zuten kiniela egiteko aukera, eta jadanik 1.700 erabiltzailek egin dute beraien aukeraketa. Jendea «gogotsu» dagoela jakinarazi dute elkarrekin kide Oihan Odriozola zaurtarrak eta Egoitz Lizaso zumaiarrek.

Tabernetan, etxean, lankideen artean edota lagunartean betidanik egin dira txirrindularitza lasterketen porrak. Hori horrela izanik, Tropelako kideek ekimen hori modu zabalago batean bultzatu nahi izan zuten. Baina Odriozolak eta Lizaso aitortu duenez, «txirrindularitza, azken batean, aitzakia bat baino ez da euskara eta teknologia berriak sustatzeko».

Lizasoren hitzetan, «txirrindularitza munduan, euskara hutsezko plataformarik ez zegoen Interneten. Guri txirrindularitza asko gustatzen zaigunez, hutsune hori pixka bat bete nahi genuen. Eta egia esan, jendea nola erantzuten ari den ikusita, beharrezkoa zela uste dugu».

Lasterketaz lasterketa

Duela bi urte ekin zioten Tropela ekimenari, Frantziako Tourrarekin. Estreinako saiakera hartan izandako arrakastaren



Tropela Elkarteko kide Oihan Odriozola eta Egoitz Lizaso. ARITZ MUTIOZABAL

ondorioz, Espainiako Buelta ere egitea erabaki zuten. Iaz, «bost txirrindularitza proba nagusi aukeratu genituen — Euskal Herriko Itzulia, Italiako Giroa, Frantziako Tourra, Espainiako Buelta eta Munduko Txapelketa, alegia—, eta aurtengo bost horiek errepikatzen ari» direla azaldu du Odriozolak.

Uztaila ate joka dagoen honetan Frantziako Tourraren txanda da, eta 5.000 erabiltzaileetara iritsi daitezkeela aurreikusten dute Tropela elkartek. Kiniela festa abian da, beraz. Ekimenean parte-hartzea doakoa da, eta gainera sari erakargarriak dituzte jokoan. Etapa bakoitzean puntu gehien

lortzen duenak euskal txirrindulari baten elastikoa eskuratuko du, sinaturik. Sari nagusia, berriz, Tour osoan zehar puntu gehien lortu duenarentzat izango da: itsas bidaia bat oparituko baitute Mediterraneo itsasoan zehar. Sari potolo horiez gain, gehiago ere banatuko dituzte parte-hartzaileen artean.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Unai Arrieta Kortajarena (Amasa). Gaur 4 urte. Muxu handi bat eta oso ondo pasa!
URTE ASKOAN
 Harkaitz Amundarain (Amezqueta). Gaur 4 urte. Zorionak opa dizkizu sendiak.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa

hitza
 agurren tartea

Urtebetetzak, urrezko etzeiak, ezkontzak, jaioberriak...